

**FORU GOBERNU KONTSEILUAREN AZAROAREN 27KO 5/2018 ZERGA  
PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, ZEINAK ONESTEN BAITU GASAREN,  
PETROLIOAREN ETA KONDENTSATUEN ERAUZTE BALIOAREN GAINEKO  
ZERGA**

**(ALHAO, 140. zk., 2018-12-5)**

(Arabako Batzar Nagusiek 2018ko abenduaren 19ko 24/2018  
Foru Arauaren bidez baliozkotu zuten)

Ekonomia Itunaren azken aldaketa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko uztailaren 19an erabakitakoa, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak gauzatu du; Arabako Batzar Nagusiek ekainaren 13ko 7/2018 Foru Arauaren bidez berretsi dute.

Erabaki horren bidez gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzketaren balioaren gaineko zerga ituntzen da. Indarrean dagoen Ekonomia Itunak 23 sexies artikuluan arautzen du nola ituntzen den zerga hau, eta ezartzen du Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiola. Gainera, lurralde historikoei eskumen batzuk ematen zaizkie zergaren konturako ordainketak ordainarazteko eta eskatzeko kontzesioan aipatzen den perimetroaren arabera, bai eta aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onartzeko ere.

Zerga hau maiatzaren 21eko 8/2015 Legeak sortu zuen; lege horrek urriaren 7ko 34/1998 Legea, hidrokarburoen sektorearena, aldatzen du, eta hidrokarburoak aztertu, ikertu eta ustiatzeari lotutako zenbait zerga neurri eta bestelako neurriak arautzen ditu. Zuzeneko zerga erreala da; hidrokarburoen ustiategietan gasa, petrolio eta kondentsatuak erauztea kargatzen du.

Zerga berri hori Arabako Lurralde Historikoko zerga ordenamenduan txertatu behar denez gero, zerga premiazko araugintzako dekretu hau eman behar da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako araugintza eraginaren txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

**XEDATZEN DUT:**

**1. artikulua. Izaera.**

Gas, petrolio eta kondentsatuen erauzketa balioaren gaineko zerga zuzeneko zerga erreala da; bere aplikazio eremuko jabari publikoan erauzten diren gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen balioa kargatzen du, arazketa eta bereizketako lehen tratamendua egin ondoren.

**2. artikulua. Ereku objektiboa.**

Zerga honen eremu objektiboan urriaren 7ko 34/1998 Legeak, hidrokarburoen sektorearenak, arautzen dituen hidrokarbuero likidoak eta gaseosoak daude.

### **3. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia.**

Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan (hemendik aurrera foru araua) ezartzen denak ez du ezertan eragotziko barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatzen dena.

### **4. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Zergaren ordainarazpen ardura Arabako Foru Aldundiak edukiko du Arabako Lurralde Historikoan dagoenean erauzketa gunea ustiatzeko kontzesioan aipatzen den perimetroa, maiatzaren 21eko 8/2015 Legeak 22. artikuluan aipatzen duena (lege horrek urriaren 7ko 34/1998 Legea, hidrokarburoen sektorearena, aldatzen du, eta hidrokarbueroak aztertu, ikertu eta ustiatzeari lotutako zenbait zerga neurri eta bestelako neurriak arautzen ditu).

Aurreko paragrafoan aipatzen den perimetroko lursaila EAEn eta lurralde erkidean badago, zergaren ordainarazpena bi administrazioen artean banatuko da modu proportzionalen.

### **5. artikulua. Zerga gaia.**

1. Zerga honen zerga gaia da gasa, petrolio eta kondentsatuak erauztea urriaren 7ko 34/1998 Legeak, hidrokarburoen sektorearenak, II. kapituluaren aipatzen dituen hidrokarburoen ustiatzearen kontzesioetan.

2. Foru arau honetan ageri diren berezko substantibotasuneko kontzeptuak eta terminoak direla eta, hidrokarburoen sektorearen Estatuko araudian xedatzen dena aplikatuko da, arauan bertan zehazten diren kasuetan izan ezik.

### **6. artikulua. Zergadunak.**

Zerga honen zergadunak dira aurreko artikuluan azaltzen diren jarduerak egiten dituzten pertsonak, fisikoak zein juridikoak, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak.

### **7. artikulua. Zerga oinarria.**

1. Zerga honen zerga oinarria erauzten den gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen balioa da.

Hain zuzen ere, balio hori zergaldian erauzten diren zergaren eremu objektiboko produktu guztien batura izango da, arazketa eta bereizketako lehen tratamendua egin ondoren.

Honako hau hartuko da kontuan gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen kopurua kalkulatzeko: maiatzaren 21eko 8/2015 Legeak 8. artikuluan aipatzen dituen hidrokarbueroak erauzteko gailuetan neurtzen den bolumena (lege horrek urriaren 7ko 34/1998 Legea, hidrokarburoen sektorearena, aldatzen du, eta hidrokarbueroak aztertu, ikertu eta ustiatzeari lotutako zenbait zerga neurri eta bestelako neurriak arautzen ditu). Neurketa horretan honako hauek kendu behar dira putzuburuko guztirako bolumenetik: eragileak berak aplikatzen duen arazketa eta bereizketa prozesuan baztertzen diren gaiak (ura, CO<sub>2</sub> eta behar ez diren beste substantzia batzuk).

Hori dela eta, erauzketa balioa kalkulatzeko, organo eskudunak onartzen duen erreferentziako prezioa aplikatuko zaio erauzten den produktuaren guztirako bolumenari. Bolumena honela adieraziko da:

a) Petrolio eta kondentsatuak: petrolio upeletan; upelaren edukiera eta neurtzeko modua organo eskudunak finkatuko ditu.

b) Gas naturala: metro kubikoetan, temperatura zero gradu zentigradokoa eta presioa bar batekoa direla neurtuta.

Produktu bakoitzaren erreferentziako prezioa zergaldiko hamabi hiletako prezio guztien batez bestekoa izango da. Hileko prezio horiek kalkulatzeko erreferentzia produktu bakoitzak merkatu ezagunenetan daukan kotizazioa izango da.

2. Aurreko idatz zatian azaltzen den zerga oinarria foru arau honetako 5. artikuluan adierazitako jarduerak egiten diren ustiapen kontzesio bakoitzeko kalkulatu da.

## 8. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia urte natura izango da, kasu honetan izan ezik: zergadunak ekitaldia amaitu aurretik ustiapenaren kontzesioaren jarduera eteten badu, zergaldia jarduera etentzat jotzen egunean amaituko da.

2. Zerga zergaldiaren azken egunean sortuko da.

## 9. artikulua. Kargaren eskala.

1. Ustiategian petrolio eta kondentsatuak ekoizten badira, zerga honako karga eskala honen arabera eskatuko da:

Zergaldian erauzitako upelak	Zerga tasa	
	Lehorreko ustiategia	Itsasoko ustiategia
365.000 arte	% 2	% 1
365.001 - 3.650.000	% 6	% 5
3.650.000 baino gehiago	% 8	% 7

2. Produktua gasa bada, zerga honako karga eskala honen arabera eskatuko da:

Zergaldian erauzitako bolumena	Zerga tasa		
	Itsasoko ustiategia	Lehorreko ustiategia	
		Konbentzionala	Konbentzionala
32.850.000 m <sup>3</sup> arte	% 1	% 3	% 1
32.850.000 – 164.250.000 m <sup>3</sup>	% 3	% 4	% 3
164.250.000 m <sup>3</sup> baino gehiago	% 4	% 5	% 4

Hori dela eta, erauzketa ez da konbentzionala honako hau egiten bada: gasa atera aurretik bolumen handiko haustura hidraulikorako teknikak aplikatu, hau da, 1.000 m<sup>3</sup> ur edo gehiago injektatu haustura fase bakoitzeko edo 10.000 m<sup>3</sup> ur edo gehiago

haustura prozedura osoan zehar; aldiz, gainerako tekniken bidez egiten diren erauzketak konbentzionalak dira.

#### **10. artikulua. Kuota osoa.**

Kuota osoa da zerga oinarriari aurreko artikuluko eskalako karga tasa egokia aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.

#### **11. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

1. Zergadunek zergaren sortzapena gertatu ondoko urteko apirileko lehen 25 egunetan egin behar dute autolikidazioa eta ordaindu behar dute horren ondoriozko kuota, eta hori guztia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezartzen dituen arauekin eta ereduakin bat etorri egin behar dute.

2. Zergaren sortzapeneko urteko urriko lehen 25 egun naturaletan zergadunek ordainketa zatikatua egin beharko dute aribideko zergaldiari dagokion likidazioaren kontura; horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezartzen dituen arauak eta ereduak erabili beharko dituzte.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria urte naturaleko lehen sei hiletan erauzitakoaren balioa izango da; balio hori kalkulatzeko, 7. artikuluan ezartzen diren arauak eta organo eskudunak berariaz onartzen duen erreferentziazko prezioa aplikatuko dira.

Produktu bakoitzaren erreferentziazko prezioa urteko lehen sei hiletako prezio guztien batez bestekoa izango da. Hileko prezio horiek kalkulatzeko erreferentzia produktu bakoitzak merkatu ezagunenetan daukan kotizazioa izango da.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko paragrafoan arautzen den oinarriari foru arau honetako 9. artikuluan ezartzen den eskalako zerga tasa egokia aplikatu behar zaio.

#### **12. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.**

Zerga honen inguruko arau hausteak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zergen arloko arau hausteen eta zehapenen arautegia onartzen duenak, ezartzen dutenarekin bat etorri sailkatu eta zehatuko dira.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta ordenamendu juridikoak xedatzen duenarekin bat etorri sortuko ditu ondorioak.

#### **Bigarrena. Gaikuntza.**

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

#### **Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.**

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie,

indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

## **OHARRAK**